



IKER  
GAZTE  
NAZIOARTEKO  
IKERKETA EUSKARAZ

## IV. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2021eko ekainaren 9, 10 eta 11a  
Gasteiz, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:  
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

### GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Euskal Autonomia Erkidegoko eta  
Kataluniako alderdi-sistemen  
bilakaera. Polarizaziotik  
moderaziora, eta alderantziz,**

*Galder Sierra Zapirain*

201-208 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iv.02.25>



## **Euskal Autonomia Erkidegoko eta Kataluniako alderdi-sistemen bilakaera. Polarizaziotik moderaziora, eta alderantziz**

Sierra Zapirain, G.

UPV/EHU

galder.sierra@ehu.eus

### **Laburpena**

Artikulu honetan azken urteotan Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) eta Kataluniako alderdi-sistemetan emandako aldaketa nagusi batzuk aztertuko ditugu. Bilakaera historiko osoaren inguruko ikuspegi zabala izateko azken berrogei urteotako hauteskunde autonomikoetako deialdiak aztertu ditugu, azken hamarkadakoei arreta berezia eskainiz. Gure hipotesia aldaketa hauek, partzialak baino, aurreko hiru hamarkadetan indarrean egon ziren eredu birmoldaketei erantzuten dietela da. Lehenengoaren kasuan, alderdi-anitzeko sistema polarizatutik, alderdi-anitzeko sistema moderatura; eta bigarregoa kasuan, alderantzizko norabidean. Analisia ikuspegi kuantitatibotik burutu dugu, horretarako alderdi-sistemen neurketarako hainbat adierazle erabiliz, beti ere modu konparatu batean.

Hitz gakoak: Euskal Autonomia Erkidegoa – Katalunia – Alderdi sistema – Polarizazioa – Nazionalismoa

### **Abstract**

*The evolution of party systems in the Basque Autonomous Community and Catalonia.*

*From polarization to moderation, and vice versa.*

*In this article we are going to analyse some of the main changes that have occurred over recent years in the party systems of the Basque Autonomous Community (BAC) and Catalonia. In order to get a broader perspective, we will analyse regional elections over the last forty years, paying special attention to those of the last decade. Our hypothesis is that the changes in the existing systems over more than three decades, go beyond being partial changes, and correspond to a transformation of both models. In the case of the former, going from a polarized multi-party system to a moderate multi-party system; and the other way round in the case of the latter. We will carry out the analysis with a quantitative approach, using a series of indicators to measure the party system, all in a comparative way.*

*Key words: Basque Autonomous Community – Catalonia – Party System – Polarization – Nationalism*

### **1. Sarrera eta motibazioa**

Alderdi politikoak jendartearen antolaketarako ezinbesteko osagaiak bezala definitu izan dira Modernitatetik hona. Mendeotan zehar emandako aldaketek eragin zuzena izan dute alderdien barne konfigurazioan, gaur egungo jendarteak zeharkatzen dituzten krisi ezberdinek ere (ekonomikoak, sozialak, kulturalak, nazio edo genero identitatei lotutakoak) hauengan eragin zuzena dutelarik. Alderdi ‘tradizionalen’ gainbehera, berrien sorrera, zentzu ezberdinetako populismoen goraldia, ... botere politikoaren artikulazioan ematen ari diren aldaketen islak baino ez dira.

Gure hurbileko alderdi politikoek eta beraien arteko hartu-emanak definitzen dituzten alderdi-sistemek ez diote egoera horri ihes egin. Hurrengo lerroetan horietako bi sistemengan jarriko dugu arreta: Euskal Autonomi Erkidegokoarengan (EAE) eta Kataluniakoarengan. Izan ere, azken hamarkada luzean zehar batean zein bestean emandako aldaketa sozialek eragin zuzena izan baitute bertako alderdi eta alderdi-sistemengan. Gure ustez, jarraian aztertuko ditugun alderdi-sistemen aldaketa hauek, testuinguru zehatzari erantzuten dioten azaleko moldaketak baino, azken urteetara arte indarrean egon diren ereduak sakonki eraldatuz joan dira.

Bilakaera hau zentro-periferia *cleavage*-aren<sup>1</sup> (Lipset eta Rokkan, 1967) ikuspegitik landuko dugu. ‘Cleavage’-aren kontzeptua ‘banaketa-lerroa’ bezala definitu dezakegu, jendarte antolatzeke balio duen kategoria bezala ulertuta. Zentro-periferia lerro honek gurean nazio-identitate ezberdinekiko atxikimenduan forma hartu du. Identifikazio hau, hainbatetan ‘txuri ala beltz’ dikotomian baino,

---

1 Lipset eta Rokkan-entzat *cleavage* klasikoak lana/kapitala, landa/hirigune, Eliza/Estatua eta jada aipatutako zentro/periferia lirateke, azken hamarkadotan berriak nagusitzen joan direlarik.

nortasun batetik bestera doan *continuum*-aren puntu batekiko identifikazioan gorpuztu da; dinamika politikoaren garapenean sektore sozial eta politiko ezberdinen hurbiltzeak edo urruntzeak zehaztu duelarik sistemaren bilakaera. Zentzu honetan, hainbatetan ‘ardatz nazionala’ bezala ere deitua izan denak norabidetuko du ikerketa hau, neurri handi batean euskal zein kataluniar alderdi-sistemak lerro horren arabera antolatuta diren heinean.

## 2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Ia mende erdia pasa da Giovanni Sartori-k jada klasikoa bihurtu den *Parties and Party System. A Framework for Analysis* (1976) liburua argitaratu zuenetik. Bertan alderdi-sistemak antolatzeke oraindik erreferentzial izaten jarraitzen duen sailkapena biltzen zen, bi irizpideren arabera: alderdi kopurua eta alderdien arteko distantzia ideologikoa. Alderdi-sistema lehiakorren artean oinarritzeko lau eredu planteatzen ziren: alderdi nagusiko sistema, alderdi bikoia edo bipartidismoa, alderdi-aniztun moderatua eta alderdi-aniztun polarizatua. Azken hamarkadetan zehar eredu bakoitzaren ezaugarriak era kuantitatibo zehatzean neurtzeko bitarteko metodologiko berriak mahai gaineratzen joan dira, Sartoriren ereduaren hezurdura nagusia mantenduta, bera eguneratu eta hobetzeko atea zabalduz.

Sailkapen honen mailgutasunak mundu mailako alderdi sistema ezberdinak sailkatzeko balio izan du. Gure erreferentziatzeko kasuei dagokionez ere, ez dira falta izan sailkapen hau baliatu izan dutenak; bai euskal kasuari dagokionez (Llera *et al.* 2014), zein kataluniar dagokionez (Matas eta Reniu, 2003). Azterketa hauek gorago aipatutako hipotesia mahai gaineratzen hasteko lehen zantzu batzuk erakutsi bazituzten ere, azken urteotako bilakaeran sakontzen jarraitzea ezinbestekoa da bera enpirikoki frogatu nahi bada. Alde horretatik, lan honen helburua bi alderdi-sistema hauek ikuspegi diakroniko batetik alderatzea izango da, horien bilakaera lau hamarkadetan zehar aztertuz eta arreta berezia jarritz azken hamar urteei; beti ere, batean zein bestean eredu aldaketak zein punturaino eman diren baloratu ahal izateko.

Horretarako, eredu bakoitzari egozten zaizkion ezaugarri nagusiak aintzat hartuko ditugu, horiek kuantitatiboki neurtzeko adierazleak erabiliz. Sartorik zortzi ezaugarri nagusi egotzi zizkien alderdi-sistema aniztun polarizatuei: a) Sei alderdi edo gehiago<sup>2</sup> izatea, b) horien artean alderdi ‘antisistema’ garrantzitsuak egotea; c) oposizio bilateralak izatea, hau da, kontrakotasuna ez izatea bakarrik oposizioko alderdi eta gobernuaren artean, baizik eta oposizioko alderdien artean ere; d) zentroa okupatua egotea; e) poloen arteko distantzia ideologiko handia; f) sistemak bulkada zentrifugoak izatea, hau da, alderdiek muturretara jotzea; g) oposizio ‘arduragabeak’<sup>3</sup> izatea; eta h) betetzeko oso zailak izan daitezkeen ‘super-eskaintzako’ politikak mantentzea. Alderdi-sistema aniztun moderatuei dagokionez, berriz, honakoak: a) hiru eta bost alderdi artean izatea; b) horietako bat bera ere ez gehiengo absolutuarekin; c) koalizioa osatzeko aukera badago gutxiengoan ez gobernatzea; d) alderdi nagusien arteko distantzia ideologikoa apala izatea; e) dinamika zentripetua izatea; eta f) gobernuaren konfigurazioa bipolarra izatea, hots, familia ideologiko hurbileneko alderdiek osatuko lituzkete koalizioak (normalean, ezkerre eta zentro-ekkerre edota eskuina eta zentro-eskuina).

Baliatuko ditugun neurgailuetako batzuk alderdien ordezkagarritasun mailarekin lotuak daude (alderdi kopurua, zatiketa edo alderdi antisistemen pisua, esaterako); beste batzuk, berriz, beraien kokapen ideologikoarekin (polarizazioa edota posizio zentrala, adibidez). Bigarrenari dagozkionak, normalean bi ardatzen arabera sailkatuak izan dira: ezker-eskuin eta zentro-periferia. Gure kasuan bigarren honen inguruko polarizazio prozesua aztertuko dugu, bera alderdien arteko distantzia neurtzen duen aldagaia bezala ulertuta. Gaia jorratu duten autore gehienek baieztatu bezala (Pallarés *et al.*, 2006; Leonisio eta Strijbis, 2016; ...), dimentsio nazionala (izan) baita euskal alderdi-sistemaren bilakaera norabidetu duena; baina baita era agerikoagoan azken hamarkadan Kataluniarena ere.

## 3. Ikerketaren muina

Esan bezala, gure ikerketaren hipotesia bikoitza izango da: EAeko alderdi-sistema aniztuna polarizaziotik moderaziora doan ibilbidea egiten ari dela planteatzearekin batera, Kataluniakoak moderaziotik polarizaziora egin duela, hain zuzen. Hori frogatzeko lurralde bakoitzaren alderdi-sistemen ezaugarri nagusi batzuk biltzen dituen taula bana hartu ditugu erreferentzia bezala (ikus taula 1 eta 2). Izan ere, Sartorik berak aitortu bezala, zerrendatutako ezaugarrien artean guztiek ez dute

2 Sartorirentzat (1976) alderdi bat aintzat hartzeko bi baldintza hauetako bat gutxienez bete behar du: a) gobernu koalizioetarako hautagai egingarria izatea, edo b) bilakaera politikoa baldintzatzeko gaitasuna izatea, nagusiki dinamika zentripetotik zentrifugora. Sartorik hauei ‘koalizio’ eta ‘xantai’ baldintzak deituko die, hurrenez hurren.

3 Garrantziagatik, posizio ideologikoengatik edo bestelakoengatik gobernura iristeko aukeraz ari gara.

garrantzia berdina izango sistemaren nolakotasuna definitzerakoan. Alde horretatik, bere sailkapenerako baliatutako bi irizpideak (alderdi kopurua eta distantzia ideologikoa) azaltzeko neurgailu adierazgarrietan jarriko dugu arreta. Zehazki, a) parlamentuko alderdi kopuruan, alderdi eraginkorretan eta zatiketean, b) alderdi ‘antisistemetan’ eta c) polarizazio mailan.

Alderdi kopuruaren inguruko adierazleak osatzeko beharrezkoak ziren datuak Eusko Jaurlaritzako eta Kataluniako Generalitat-eko web orrialdeetan eskuragarri dauden datu baseetatik atera ditugu. Distantzia ideologikoari dagozkionak kalkulatzeko Euskobarometrok eta Institut de Ciències Polítiques i Socials-ek (ICPS) egindako galdetegietara jo dugu. Bi kasuetan hauteskunde autonomiko bakoitzaren deialdia eta gero egindako lehen neurketak erabili ditugu, emaitzek alderdienganako hautematean duten eragina neurtu asmoz.

### 3.1. Alderdi kopurua, alderdi eraginkorrek eta zatiketa

Lehen eta bigarren tauletan ikusi daitekeen bezala alderdi kopuruari lotutako elementu hauek neurtzeko hiru aldagai baliatuko ditugu: legegintzaldi bakoitzeko alderdi parlamentarioen kopurua, zatikatzearen markagailua (Rae, 1967) eta Alderdi Eraginkorren Kopurua (Taagapera eta Shugart, 1989). EAEko alderdi sistemari dagokionez, lehen aldagaiari erreparatu badiogu 2012ra bitarte legebiltzarrean egondako alderdi kopurua, alderdi-sistema aniztun polarizatuari egotzitako sei alderdien langa etengabe gainditu ikus daiteke; 1984ko salbuespen bakarrarekin, bost alderdi parlamentario izanik. Azken hauteskunde hauetan zentro-eskuineko boto espainolista Coalición Popular-ren<sup>4</sup> inguruan bilduta eta 1986an EAJren barruan eman zen zatiketa baino lehen, botere politikoaren sakabanaketa inoiz baino kontzentratuagoa egon zen hiru hamarkadetan zehar legebiltzarreko alderdi kopuruari dagokionez. 2012tik aurrera, berriz, sistema aniztun moderatuak finkatzen duen bost alderdietako mugaren barruan kokatuko litzateke euskal alderdi-sistema. 2012an Ezker Batuak eserlekurik ez lortzea eta EH Bilduk Aralar eta Eusko Alkartasuna (EA) barneratzea sistema bera sinplifikatu zuelarik. 2016an Podemos agertu izanak ez zuen kopuru hau aldatu, UPyD-ren desagertzea zela eta. Azken hauteskundeak eta gero, Vox-en agerpenak gutxiagatik baino berriro ere seiko langa horretan kokatu duelarik.

1. taula: EAEko alderdi sistemaren bilakaera erakusten duten adierazleen bilduma (1980-2020).

	1980	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	2016	2020
Boto antisistemaren %	16,55	14,65	17,47	18,33	16,29	17,91	10,12	12,44	8,8?	25(?)	21,26(?)	27,86(?) +1,96(?)
Legebiltzarreko alderdi kopurua	7	5	7	7	7	7	6	7	7	5	5	6
Zatiketa parlamentarioa	0,75	0,72	0,81	0,81	0,82	0,8	0,7	0,74	0,7	0,73	0,75	0,72
AEK	3,98	3,54	5,22	5,25	5,65	4,96	3,35	3,8	3,28	3,68	4,04	3,57
Posizio zentrala (1)	-	EAJ-EE	EAJ-EA-EE	EAJ-EE	EAJ	EAJ-IU	EAJ-EA-IU	EAJ-IU	EAJ-IU	EAJ	EAJ-EP	EAJ-EP
Polarizazioa	-	2,9	2,6	3,3	3,3	2,5	2,4	3,1	2,1 (2,5?)	3	2,81	2,32

(1) Posizio zentralaren adierazleak sistema osoaren batez bestekoaren +/-1 mugaren barruan gelditzen diren alderdiak jasoko ditu. 1980 urterako ez daude kokapen ideologikoaren inguruko datuak.

Baina legebiltzarrean dauden alderdi kopuruaren aldagaiak ez digu botere politikoaren banaketaren argazki zehatzegia eskaintzen. Izan ere, legebiltzar batean kuantitatiboki alderdi asko egon daitezke baina eserlekuen zati handi bat alderdi gutxiren eskuetan badago, botere politikoaren sakabanaketa txikia izango baita. Zentzu horretan, boterearen banaketa maila adierazten duten beste bi aldagaietara jo beharko dugu: zatiketara eta Alderdi Eraginkorren Kopurura (AEK). Rae-k (1967) proposatutako zatiketa indizeak bi hautesleak bi alderdi ezberdin bozkatu izanaren aukera azaltzen digu<sup>5</sup>. Horrela aukera hori 80ko hamarkada erdialdetik 90ko hamarkadaren bukaerara nabarmen igo bazen, mende berriarekin batera hori apalduko da, adierazlea 0,7ren bueltan kokatuz. Laakso eta Taagepera (1979) definitutako, eta ondoren Taagepera eta Shugart-ek (1989) hobetutako AEKren markagailuak botere sakabanaketaren argazki are zehatzagoa eskainiko digu, adierazlea bera intuitiboagoa izango delarik. Izan ere, indizearen unitateak (komaren ezkerretara kokatzen dena) alderdi garrantzitsuen kopurua

4 Coalición Popular-ek Alianza Popular (AP), Partido Demócrata Popular (PDP) eta Unión Liberal (UL) alderdiak bildu zituen hautes-marka izan zen, 1983tik 1987ra bitarte burutu ziren hauteskunde ezberdinetara aurkezteko. 1986ko hauteskunde aurreratuetan CDSen agerpenak berriro sakabanatu zuen sektore soziologiko honen bozka.

5 Eskala 0tik 1era joango litzateke, 0 alderdi berbera bozkatzeko inongo aukera adieraziko lukeelarik eta 1ek bi alderdi ezberdin bozkatu izana.

adieraziko baitu, eta dezimalek bestelako alderdi baten garrantzia apalagoa. Zentzu honetan, azken bi aldagaiek bat egingo dute arestian aipatutako epealdian botere sakabanaketa handia egon zela adierazteko orduan; bost alderdi garrantzitsu, hain zuzen. Garai horretan EAJ, PSE(-EE) eta HB kokatu ziren garrantzia handiko alderdien artean, bostera bitarteko beste bi alderdi inportanteen papera Euskadiko Ezkerra (EE), EA eta AP/PP-ren artean banatuz hauteskunde deialdiaren arabera. Mende aldaketarekin batera, berriz, egoerak sinplifikatzera egin zuen lehia nagusia hiru alderdien artean banatuz, EAJren nagusitasuna inoiz zalantzetan egon ez bada ere. Lizarra-Garaziko Akordioaren eta ETaren su-etenenaren apurketak mende berriaren lehen hamarkadan ezker abertzaleak babestuko aukera politiko ezberdinen (Euskal Herritarrok, EHAK, AuB, ...) galera ekarri zuen AEKtik kanpo utziz. Esan gabe doa, 2001. urtean abiatutako ilegalizazio zikloak nabarmen baldintzatu zuela ezker abertzalearen norgehiagoka elektoralerako aukera, horren gailurra 2009an iritsi zelarik, berak babestutako hautu politikoari (D3M) lehiatzeko aukera debekatuz eta urte horretako indize ezberdinen balioa desitxuraturaz<sup>6</sup>. EH Bilduren agerpenak, berriz, alderdi eraginkorren zerrenda horretan berriro sartu zuen, PP kanpoan utziz. Azken hamarkada horretan, 2016ko Podemos-en agerpenak bakarrik apurto zuen hiru alderdi garrantzitsuen muga, azken hauteskunde deialdiak berriro ere hirura eraman duelarik.

Kataluniako alderdi-sistemaren alderdi kopuruari erreparatzen badiogu, 2006ra bitarte legebiltzarreko alderdi kopurua era nahiko egonkor batean sistema aniztun moderatuak finkatzen duen seiko langa horren azpitik kokatu dela ikusi ahal izango dugu; lehen eta hirugarren hauteskunde deialdietan salbu<sup>7</sup>. Estatut berria izan behar zuena Espainiako Gorteetan aldatu eta ezkerreko hiruko gobernuan sortutako krisiagatik 2006an deitutako hauteskunde aurreratuetan joera aldaketa antzeman daiteke alderdi kopuruari dagokionez, Ciudadanos-en (C's) sarrerarekin. Orduetik legebiltzarrean ordezkariak duten alderdien kopuruak gora egin du<sup>8</sup>, egun zortzira iritsiz. Antzeko joera antzematen da zatiketari eta AEKri erreparatuta. Lehen hauteskunde deialdia aparte utzita, Kataluniako sistemak bi alderdi nagusi zituen mende berrira bitarte: CiU eta PSC. 1995ko emaitzek bi hauen beheakada (CiU -10 eta PSC -6) eta PPren gorakada (+10) ekarri zuten, azken honen estatu-mailako hazkundearekin bat egin zuena. Taagepera eta Shurgat-en indizearen arabera, botere politikoa hiru alderdi nagusien artean banatu zen, nahiz eta bigarrenak (PSC) eserleketan hirugarrena (PP) bikoiztu. Berriro ere aldaketa nabarmenena mende aldaketarekin batera etorri zen alderdi efektiboen muga hiruzpalauen bueltan kokatuz; baita bostera ere iritsiz azken hauteskundeetan. Joera aldaketa hau nagusiki ERCren jauziaren eskutik eman zen, orduetik aurrera hoge eserleku muga gainditu zelarik (2010eko hauteskundeetan salbu), ziuraski Estatuko Gobernuan zegoen PPK ordezkatzan zuen hautu estatalistaren aurreko erantzun bezala<sup>9</sup>; baina azpimarratzekoa da PSCren eserleku galera mailakatua ere, 2021era arte ez dituelarik bere emaitzak hobetu. Bilakaera honek alderdi garrantzitsuen kopurua gora egitea ekarri zuen, azken hauteskundeetara arte eremu (post)convergenteak bere nagusitasuna kolokan ikusi ez badu ere.

## 2. taula: Kataluniako alderdi-sistemaren bilakaera erakusten duten adierazleen bilduma (1980-2021).

	1980	1984	1988	1992	1995	1999	2003	2006	2010	2012	2015	2017	2021
Boto antisistemaren %	0	0	0	0	0	0	0	0	0	3,48	8,21	4,46	6,67+ 7,69?
Legebiltzarreko alderdi kopurua	6	5	6	5	5	5	5	6	7	7	7	7	8
Zatiketa parlamentarioa	0,78	0,61	0,63	0,63	0,71	0,66	0,74	0,76	0,72	0,78	0,72	0,79	0,81
AEK	4,46	2,59	2,73	2,71	3,42	2,97	3,87	4,08	3,52	4,60	3,60	4,72	5,19
Posizio zentrala	-	-	-	CiU-ICV	CiU-ICV	CiU-PSC-ICV	CiU-PSC-ICV	CiU-PSC-ICV	CiU-ICV	ICV	CSQP	Podem	ECP
Polarizazioa	-	-	-	0,34	0,37	0,27	0,28	0,40	0,47	0,57	0,76	0,79	0,77

1980, 1984 eta 1988 urteetarako kokapen ideologikoaren inguruko daturik ez dago.

- 6 1. taulan 2009. urteari dagokion zutabearen galdera ikurrarekin, ezker abertzaleak azken unean bozka nulorako egindako deiari jarraituz, boza horren araberrako kopuruak jaso nahi izan ditugu.
- 7 Batean zein bestean alderdi-sistema katalanean jarraipenik izan ez zuten bi alderdi txikik apurto zuten joera hau (PSA 1980an eta CDS 1988an), epealdi horretako ezaugarritze moderatua zalantzetan jarri gabe.
- 8 2010ean Joan Laportaren Solidaritat per la Independencia-rekin (SI), 2012tik aurrera CUP-ekin eta 2021ean Vox-ekin. Ez ditugu Podemosen (CSQP, En Comú, ...) inguruko formula ezberdinak aintzat hartu, eurek ICV-EUiAK betetzen zuen espazio ideologikoa ordezkatu dutelakoan.
- 9 Izan ere, CiUk ordezkatzan zuen beste hautu abertzaleak elkarlan estua garatu baitzuen PPrekin, bai estatuko gobernagarritasunari begira, zein Kataluniakoari begira (Majestic-ekok Ituna).

### 3.2. Alderdi ‘antisistemak’

Gaur egun ‘antisistema’ kontzeptuak izan dezakeen konnotazio gutxiesgarritik harago, alderdi politiko bat antisistematzat hartzeko bete beharreko ezaugarrien eztabaida zabalik da. Orain arteko hari teorikoa marraztu duen Sartoriren (1976) arabera, alderdi antisistemak «erregimenaren legitimitatea ahultzen» duten horiek lirateke. Euskal alderdi-sistema aztertzerakoan ez dira gutxi izan ezker abertzalea ordezkatu izan duten alderdi ezberdinak antisistemikotzat hartu izan dituzten joera eta ikuspegi ezberdinetako autoreak (Letamendia, 1997; Llera, 2014; ...). Ezaugarritze hori ontzat hartuta, EAEko alderdi-sistemak ezker abertzalearen eskutik eredu polarizatuek eskatzen duten alderdi antisistema garrantzitsuak izan dituela esan daiteke. Berak babestutako hautuak (HB eta EH) bozken %15aren bueltan kokatu izan dira, milurteko berriarekin batera apalaldi nabarmena ezagutu bazuten ere. Aldiz, azken hamarkada honetan ezker abertzaleak babestutako hautu politikoak (EH Bildu) 2012an bozen %25aren langa gainditzea lortu zuen; baita 1980ko lehen hauteskunde autonomikoetatik eskuratzen ez zuen bigarren postua ere. Orduetik bozen %20tik gora lortu du, azken deialdian %27,86ko maximo historikoan kokatuz.

Jauzi kuantitatibo horrekin batera, aldaketa nabarmenena ezker abertzaleak babestutako hautu politikoak izandako eraldaketa kualitatiboa litzateke, bera izaera antisistemikoa zalantzatan jarritz (Llera *et al.*, 2014). Koalizio abertzalea osatzen duten alderdi gehienek (EA, Aralar edota Alternatiba bera) ezaugarritze honetatik urruti mantendu izanak eman diezaiokeen izaera ‘sistemikotik’ harago, eztabaida honek bestelako zehaztapen kontzeptualak beharko litzateke kokapen teoriko sakonago baterako. Gaiaren sakontasunak eztabaida hori ebatzea lan honen helburuetatik kanpo uzten badu ere, hurbilpen bezala Letamendiaren (1997: 112-113) ikuspegia jasoko dugu, azken hamarkadan ezker abertzaleak egindako ibilbidea korrante antisistemiko horretan kokatzen den zalantzatan jartzeko. Izan ere, bere ustez «nazionalismo periferikoak sistemikoak izango dira bere eskaerak (*input*-ak) era agerikoan normalizatutako bideetatik adierazten dituztenean, lurralde agintari zentralen erabakiak (*output*-ak) baldintzatuz». Sistemak hiru erantzun posible eragingo ditu sektore horrengan: asetzea, ez-asetzea edo axolagabekeria, baina joera antisistemikoetan ez bezala, hiruetako batek ez luke sistema zalantzatan jarriko, «ziklo sistemikoa berrabiarazi» baizik. Gainera sektore horrek a) kapital sozial handia badu, b) bere joera ideologikoak malgutuz baditu eta c) sistemaren aldeko blokeak aintzat hartzen badu, joera sistemikoaren adierazlea ere izango da. Gauzak horrela, gaur egun nekez kokatu ahal izango dugu ezker abertzaleak babesten duen hautu-elektorala indar antisistemikoen baitan, euskal alderdi-sistemaren moderazioerako joeraren erakusgarri. Berritasuna alde antisistemikoa beste muturretik irekitzean legoke, Vox-en legebiltzarreko sarrerarekin. Berak a) kapital sozial apala, b) muturreko joera ideologikoa eta c) (momentuz) bloke sistemikoaren aldetik deszertifikatua<sup>10</sup> izan delarik. Orain arte bere pisu erlatibo txikiak, aldiz, ez du euskal politika polarizatu edo dinamika zentrifugoa batera eramane.

Kataluniaren kasuan berriz, historikoki joera antisistemikoko alderdirik ez dugu ikusi. Aldaketarik izatekotan 2012tik aurrera etorri zen CUPen sarrerarekin. Ordezkaritza parlamentarioa duten eta gaur egun<sup>11</sup> antisistemikotzat hartu ohi diren alderdi gehienak bezala, CUP bera mugimendu hauek izan ohi duten egoera kontraesankorrean mugitu beharko du (Barberá eta Díaz-Montiel, 2018): alde batetik, ikuspegi nazional zein sozialetik sistemaren legitimitatea zalantzatan jartzen, baina bestetik, dinamika sistemikoak behartzen duen joko instituzionalean murgilaraziz. Gainera bere ordezkaritza orokorrean apala izan bada ere (hiru eserlektutik 2012an, gehienez hamarrera 2015ean), legebiltzarreko indar-korrelazioak tarteko, gobernabilitatea baldintzatzeko giltza izan du azken sei urteetan, Kataluniako dinamika politikoaren izaera zentrifugoa nabarmen indartuz. Alde horretatik, CUPek bere txikitasunean bete-betean beteko litzateke alderdi garrantzitsu bezala kontsideratzeko Sartorik planteatutako ‘koalizio’ eta ‘xantai’ baldintzak. Beste alde batetik, euskal alderdi sistemaren kasuan bezala, bertan ere Vox-ek azken hauteskundeetan lortutako hamaika eserlekuek izan dezaketen eragin polarizatzailea erantsi beharko genioke, kasu honetan laugarren indarra izateak sortu dezakeen efektu biderkatzailearekin.

10 McAdam, Tarrow eta Tillyrentzat (2005: 161) *zertifikazioa* «aktoreen, bere ekintzen eta aldarrikapenen balioztatzea litzateke, kanpo aginteen eskutik», *deszertifikazioa* kontrako prozesua litzatekeelarik.

11 Sartorik (1976) alderdi antisistemikoez hitz egiten duenean alderdi komunista edo faxista tradizionalerik ari da. Egundak, aldiz, demokrazia liberalen hegemonia kulturala aintzat hartuz (alegia, bera kuestionatzen duten alderdi parlamentarioak nekez aurkitu ahal izango ditugunez) zailagoa egiten da alderdi hauek era hertsian identifikatzea.

### 3.3. Polarizazioa

Polarizazioak alderdi politikoen arteko distantzia ideologikoari erreferentzia egingo dio, bera neurtzeko era ezberdinak egongo direlarik. Sartorirentzat (1976), esaterako, muturretan kokatzen ziren alderdien arteko distantziak definituko du alderdi sistema baten polarizazio maila. Taylor eta Hermanek (1971), berriz, alderdi guztien arteko distantzia eta beraien arteko pisu erlatiboa aintzat hartuko dute, bera bozetan edo eserleketan neurtu ahalko delarik. Bigarren metodo honek ikuspegi zehatzagoa eskainiko digu; lehenengoak muturreko alderdien arteko distantzia ideologiko handia erakutsi diezaguke, baina beraien pisua txikia bada sistema osoaren polarizazio maila *erreal*a distortsinatuz dezakeelako. Beste alde batetik, alderdi bakoitzaren kokapen ideologikoa zehazteko iturri ezberdinak ere aurkituko ditugu: eliteko kideek beraien alderdiaz egiten duten kokapena edota jendarteak orokorrean alderdi ezberdinez egiten duena, esaterako. Gure kasuan, batetik, galdeketa bateko inkestak<sup>12</sup> beraien buruaz egiten duten auto-kokapenak, eta bestetik, emandako bozak edo alderdi batekiko atxikimenduak zehaztuko dute alderdi horren kokapena ideologikoa<sup>13</sup>.

Ruiz eta Oteroren (2013) arabera, 1etik 10era doan eskala erabilia (Euskobarometroko datuen kasua) hiruren bueltako indizeak polarizazio altua adierazten du, hiritik aurrerakoa oso altua izanik. EAEko alderdi-sistemaren ibilbide osoari erreparatzen badiogu (ikus 1. taula) 90ko hamarkada polarizazio maila oso altuko epealdia bezala ezaugarritu genezake. Mende berriak utzitako adierazleek, apur bat apalagoak izanda ere, maila altuan kokatu zuten alderdien arteko distantzia ideologikoa. Hala ere, epealdi batean eta bestean azaleratutako polarizazioaren jatorria ezberdina izan daiteke. Izan ere, 90ko hamarkadako polarizazioak botere sakabanaketa handiarekin bat egiten zuen. Hamarkada berriarekin batera, aldiz, alderdi garrantzitsuen kopuruak behera egin zuen ezker abertzalearen jaisieraren ondorioz, baina polarizazio maila nahiko altua mantenduta. Honek, alderdi garrantzitsu gutxiago egonda, beraien arteko distantzia ideologikoa handia izaten jarraitu zuela esan nahiko luke. Bilakaera honek bat egingo luke garai horretan EAJk ardatz nazionalaren mutur batera eta PPK eta PSOEk bestera hurbildu izanaren tesiarekin. 2012tik aurrera, berriz, joera aldaketa izan daitekena antzematen hasi gara. Izan ere, urte horrek utzitako emaitzak altuak badira ere (EH Bilduren sarrera indartsuagatik) hurrengo bi deialdietan joerak behera egin jarraitu du, bi kasuetan historikoaren mediaren (2,7) azpitik eta 2020koan polarizazio mailarik baxuenarekin.

Kataluniari dagokionez, berriz, tendentzia alderantzizkoa litzateke<sup>14</sup>. Mende aldaketarekin batera burutu ziren hautes-deialdietan (1999 eta 2003) distantzia ideologikoaren murrizte bat eman zen. Hau abertzaletasunaren inguruko bi blokeetan ematen zen kontrako norabideko joeraren ondorioz gertatu zen<sup>15</sup>; hau da, PSC eta ICVren jarraitzaileengan nortasun katalanarekiko identifikazio handiagoa eman zen bitartean, alderdi abertzaleengan eman zen nortasun katalanaren eksklusibotasuna apaldu zen. Hain zuzen, PSCrengan ematen zen identifikazio katalanistak 90ko hamarkadan zehar gora egin zuen 2003ra arte, ziur aski maragallismoaren ikuspegi federalistak bultzatuta; ICVren jarraitzaileengan ere bereziki nabarmena izan zelarik. Gainera, bi alderdi hauek 1999ko hauteskundeetan Girona, Lleida eta Tarragonan batera aurkeztu eta inoizko emaitzarik hoberenak lortu izanak (52 eserleku), efektu biderkatzailea izan zuen joera despolarizatzaile honetan, serie osoaren maila apalena lortuz (0,27)<sup>16</sup>.

12 Gorago aipatu bezala, EAEko alderdi-sistemaren neurketa egiteko Euskobarometroko inkestak baliatu ditugu. Txostenetan beharrezko datuak agertzen ez ziren kasuetan Llera *et al.*-rena (2014) jo dugu, iturri berberari erreferentzia egiten zioten neurrian, beti ere Taylor eta Herman-en neurketa sistema baliatuz.

13 Inkestak beraien auto-kokapen ideologikoaren inguruan galdetu zitzaizkien: Euskobarometroko galdetegiaren kasuan «euskar nazionalismoarekiko» atxikimendu mailaren inguruan, 0-k «inongo atxikimendurik ez» adieraziz eta 10-ak «erabatekoa»; ICPSkoaren kasuan, bere nortasuna nazionalaren inguruan, 1-k «bakarrik espainiarra» eta 5-ek «bakarrik kataluniarra» adieraziz. Ondoren, azken hauteskundeetan zer alderdi bozkatu zuten (Euskobarometroko inkesta) edo zer alderdirekiko identifikatzen diren (ICPSren inkesta) galdetu zitzaizkien, alderdi bakoitzaren kokapena bere bozkatzaile/jarraitzaileen puntuazioaren media izanik. Bi galderak ezberdinak diren arren, identifikazio nazionalari buruzkoak izanik, ardatz nazionalaren inguruko polarizazioa neurtzeko baliagarriak suertatzen zaizkigu, nagusiki horien bilakaera aztertu nahi dugun heinean.

14 Arestian aipatu bezala adierazle hau neurtzeko baliatutako galderaren eskala txikiago da aurrekoarena baino (kasu honetan -ICPS- 1etik 5era, eta ez 1etik 10era -Euskobarometro-). Horregatik indizea konparatiboki apalagoa izango da.

15 Identifikazio nazionalen inguruko datu hauek, ICPSko galdetegietan jasotako erantzunekin osatuta, alderdi politikoen kokapen ideologikoari erreferentzia egiten diete, gorago aipatutako metodoa baliatuta.


16 Garai honetakoa da PSC, ERC eta IC-EUiA-ren arteko ezkerreko hiruko lehen gobernuak, Estatut-ak Madrilen izandako moldaketen gaineko iritzi ezberdinak tarteko apurta zena, nahiz eta hurrengo legegintzaldian errepikatu.

Nortasun nazionalaren moderaziorako joera honek ere bere isla izan zuen alderdi abertzale katalanengan, 1999tik 2003ra bitarte serieko identifikazio katalanista apalena eskuratuz.

Moderaziorako joera honek aldaketa nabarmena ezagutu zuen 2003tik aurrera, urtez urte polarizazio indizeak gora egin zuelarik 2017ra arte. Soberanisten artean era nabarmenagoan CiUren kasuan, bere jarraitzaileen nortasun katalanistaren intentsitateak gora egin zuelarik 2018ra bitarte. Zentzu honetan, adierazgarria da 2012tik aurrera CiU bezalako alderdi nagusi batek ardatzaren zentroko posizioa galtzea (ikus 2. taula). Joera polarizatzaile hau ere alde konstituzionalistan agerikoa izango da; bai PSCren jarraitzaileek mende berriaren lehen hamarkadan zehar nortasun espainolarekiko adierazten zuten atxikimenduaren hazkundeagatik, baita 2006an C's-en agerkundeagatik ere.

Bi lurraldeen polarizazio mailaren dinamika aztertuta (ikus 1. irudia<sup>17</sup>) ikusi ahal izango dugu bi alderdi-sistemek izandako alderantzizko bilakaera. EAEkoaren kasuan, 90ko hamarkadan zehar polarizazio maila oso altua izan zen, mende aldeketarekin batera (ETAren su-etenaren eta Lizarrar-Garaziko Akordioaren testuinguruan) behera egin zuelarik, 2001etik aurrera berriro igoz. 2009ko hauteskundeetan D3Mren legez kanporatzeak adierazlea erabat desitxuratzen du, urte horretako indizearen adierazgarritasuna apala izanik. 2012tik aurrera, berriz, polarizazioak behera egingo du, egun serie osoaren minimoetan kokatuz. Kataluniaren kasuan, berriz, 2003tik aurrera distantzia ideologikoa gora egingo du etengabe. 2021eko azken hauteskundeek, berriz, aurrera begira polarizazioaren apaltze edo gainbehera suposatu dezakeen joera aldaketa iradoki dezakete.

1. irudia: EAE eta Kataluniako polarizazio indize estandarizatuen bilakaera.



#### 4. Ondorioak

Lan honetan aipatutako bi alderdi-sistemengan azken urteotan emandako aldaketa nagusi batzuk aztertzen saiatu gara; hauek, azalekoak baino, eredu aldaketa sakonago bat iradokitzen dutela planteatuz. Horrela, EAEko alderdi-sistema aniztun polarizatutik moderatura doan eredu aldaketaren ezaugarriak antzematen hasi gaitezke: batetik, 90ko hamarkadan izandako bozken zatiketa eta alderdi garrantzitsuen kopuru altutik, azken hamarkadako maila apalagoetara, kontutan izanik alderdi garrantzitsu horietako batzuen indar-korrelazioak ere aldatu direla (nagusiki, EH Bilduk bigarren postua lortuz PSE-EEren aurretik eta PP berriro bigarren mailako alderdi bihurtuz); eta bestetik, baliatutako inkestek alderdien arteko polarizazioa mugatu dela iradokitzen duten heinean. Kataluniako alderdi-sistemaren kasuan, berriz, 80ko eta 90ko hamarkadetan zehar botere politikoa bi alderdi garrantzitsuen artean (CiU eta PSC) banatetik, hiru, lau edota bost alderdi garrantzitsu erakusten duen alderdi-sistema batera igaro dira; bereziki nabarmena izanik dimentsio nazionalen alderdien artean eman den polarizazioaren handitzea. Zentzu honetan, alderdi anitzeko sistemetan botere politikoaren sakabanaketa apalak eta alderdien arteko distantzia ideologikoa mugatzeak, sistemaren moderaziorako joera erakutsiko luke; boterea geroz eta alderdi gehiagoren artean banatzeak eta beraien arteko urruntzeak polarizaziorako joera adieraziko lukeen bezala.

Polarizazioaren kategoriari egotzi izan zaizkion ezaugarri gutxiesgarrien gainetik, dinamika honek sortu ohi dituen eraginengan arreta jartzea litzateke garrantzitsuena. Izan ere, sistema moderatuei egonkortasun altuagoa eta akordietarako aukera handiagoa izatea egotzi bazaie ere, ez dira gutxi izan ditzaketen bestelako eraginak: lausotasun ideologikoa eskaintza politikoan edota gobernuen politikei

17 Galdetegi batean eta bestean eskala ezberdinak baliatu direnez, grafiko honetan balioak estandarizatu dira alderagarriak izateko. Urteei dagokienez, denboran gertuen zeuden bi hauteskunde deialdiak alderatu nahi izan ditugu. Kataluniaren kasuan, deialdi bat gehiago izan denez, 2017an bertan egin zena EAEn 2016an eta 2020an ateratako balioen batz bestekoarekin alderatu dugu.



erantzuteko gaitasun mugatuagoa, esaterako. Aldiz, dinamika polarizatuek sistema politikoaren garapenerako aurreikusi gabeko lehioak ireki ditzakete: hautu politiko argiagoak, parte hartze elektoral suspertzea edota alderdien arteko lehiakortasun handiagoa (Dalton, 2008). Alde horretatik, aztertutako bi alderdi-sistemengan emandako aldaketek dinamika politiko orokorren bilakaeran sortu ditzaketen eraginak antzematen hasteko aukera zabaldu nahi izan dugu; aurrera begira, gizarte-zientzien ikusipegitik, bi kasu hauen garapena gertutik jarraitu beharreko gaia izango delarik.

## 5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Alderdi-sistemen azterketarako adierazle nagusietako batzuk erabili ditugu; nagusiki, Sartorik alderdi-sistemen sailkapenerako baliatutako bi irizpide nagusiak neurtzeko baliatzen direnak: alderdi kopurua eta distantzia ideologikoa. Ikerketan sakontzen jarraitu eta eredu bakoitzaren (polarizatu edo moderatu) beste ezaugarriak neurtzeko bestelako adierazleak erabili daitezke: oposizioen izaera neurtzeko (bilateral ala alde-bakarrekoa), gobernuen izaera frogatzeko (gehiengo mota, bere izaera bipolarra edo polo bakarrekoa) eta abar. Gainera, lan honetan azterketa kuantitatiboan zentratu gara, ikuspegi osatuago bat izateko datu horien atzean egon daitezkeen aldagai kualitatiboan azterketa ere garatu beharko litzatekeelarik.

Azkenik, kontutan hartu behar dugu bi alderdi-sistema hauen (des)polarizazio prozesuaren neurketa ardatz nazionalaren inguruko kokapenaren arabera egin dugula. Autore ezberdinek dimentsio honen garrantzia nabarmendu badute ere, bestelako polarizazio ardatz batzuk hartzen ari diren inportantzia aintzat hartu beharko litzatekeelarik. Zentzu horretan, aldagai-anitzeko analisi estadistikoak afera edo ardatz horiek jendartean izan dezaketen pisua neurtzeko atea zabaltzen digu.

## 6. Erreferentziak

- Barberà, O. eta Díaz-Montiel, A. (2018): Ho volem tot! La CUP y la articulación del independentismo de izquierda radical en Cataluña, *Revista de Estudios Políticos*, 182, 159-189. doi: <https://doi.org/10.18042/cepc/rep.182.06>
- Dalton, R. (2008): The Quantity and the Quality of Party Systems Party System Polarization, Its Measurement, and Its Consequences, *Comparative Political Studies*, 42, 899-920.
- Euskobarometro (2021): *Aurkezpenak (1999-2019)*. Helbide honetatik jasota: <https://www.ehu.es/eu/web/euskobarometro/aurkezpenak>
- Instituto de Ciencias Políticas y Sociales (2020): *Sondeo de Opinión Cataluña, Base de datos integrada 1991-2019*. Helbide honetatik jasota: <https://www.icps.cat/>
- Laakso, M. eta Taagepera, R. (1979): Effective Number of Parties: A Measure with Application to West Europe, *Comparative Political Studies*, 12, 3-27.
- Leonisio, R. eta Strijbis, O. (2016): «La polarización bidimensional», in F. Llera (ed.), *Las elecciones autonómicas en el País Vasco, 1980-2012*, Centro de Investigaciones Sociológicas, Madrid, 160-173.
- Letamendia, F. (1997): *Juego de espejos*, Trotta, Madrid.
- Lipset, S.M. eta Rokkan, S. (1967): «Cleavage structures, party systems, and voter alignments: an introduction» in S.M. Lipset eta S. Rokkan (eds.), *Party Systems and Voter Alignments*, The Free Press, New York, 1-64.
- Llera, F., Leonisio, R., García, J. eta Perez, S. (2014): Las elecciones autonómicas vascas de 2012. Alternancia en un nuevo ciclo político, *Sistema: revista de ciencias sociales*, 236, 2-35.
- Matas, J. eta Reniu, J. M. (2003): La política de las coaliciones en Cataluña, *Revista Española de Ciencia Política*, 9, 83-112.
- McAdam, D., Tarrow, S. eta Tilly, Ch. (2005): *Dinámica de la contienda política*, Hacer, Barcelona.
- Rae, D. (1967): *The Political Consequences of Electoral Laws*, Yale University Press, New Haven.
- Ruiz, L. M. eta Otero, P. (2013): *Indicadores de partidos y sistemas de partidos*, Centro de Investigaciones Sociológicas, Madrid.
- Sartori, G. (1967): *Parties and Party System. A Framework for Analysis*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Taagepera, R. eta Shugart, M. S. (1989): *Seats and Votes. The Effects and Determinants of Electoral Systems*, Yale University Press, New Haven.
- Taylor, M. eta Herman V. M. (1971): Party Systems and Government Stability, *American Political Science Review*, 65, 1: 28-37.